

NEKAZARITZA, LOREZAINITZA ETA LORE KONPOSIZIOAK



IMFPB DURANGO OLHUI



ONARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO UDAL INSTITUTUA DURANGO

Formakuntza- plana:

- Hauek dira heziketa-ziklo honetako moduluak:
- Laboreak ureztatzeko, ongarrizko eta tratamenduak aplikatzeko jarduerak. (120o)
- Lurra prestatzeko, landatzeko eta ereiteko eragiketa osagarriak. (165 o.)
- Landareak mintegietan eta lorezaintza-zentroetan sortu eta mantentzeko oinarritzko eragiketak. (198 o.)
- Lore eta landare konposizioak prestatzeko eragiketa osagarriak. (144 o.)
- Lorategiak, parkeak eta berdeguneak ezartzeko oinarritzko eragiketak. (132 o.)
- Lorategiak, parkeak eta berdeguneak mantentzeko oinarritzko eragiketak. (132 o.)
- Lorezaintzako materialak (96 o.)
- Zientzia aplikatuak I. (165 o.)
- Zientzia aplikatuak II. (144 o.)
- Komunikazioa eta gizartea I. (165 o.)
- Komunikazioa eta gizartea II. (168 o.)
- Laneko prestakuntza eta orientabidea. (53 o.)
- Lantokiko prestakuntza. (260 o.)
- Tutoretza eta orientabidea I (33 o.)
- Tutoretza eta orientabidea II (25 o.)

Zer ikasiko dut?

- Lur-eremua eta substratua beharrezko makineria, tresna eta lanabesekin prestatzea landare-materiala ezartzeko eta produzitzeko, betiere ondoren izango duen erabilera kontuan izanik
- Laboreak babesteko eta ureztatzeko azpiegiturak instalatzeko oinarritzko lanak egitea, eskuz edo makineria sinple baten laguntzarekin, betiere ingurumenean duten eragina minimizatuta.
- Laboreak, lorategiak, parkeak edo berdeguneak homogeneotasunez ongarritzea, dosi, une eta tresneria egokian, haien nutrizio-beharrek edo -gabeziak asetzeko.
- Landareak mintegian edo negutegian produzitzeko lanak egitea.
- Lore-dekorazioko lanak muntatzea eta desmuntatzea
- Landarea lorezaintza-zentroko salgunean aurkezteko oinarritzko lanak egitea,

Ikasketak amaitzean, zer egin dezaket?

Honako lanbide hauetako bat izan dezakezu:

- Nekazaritzako peoia.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako peoia.
- Baratzegintzako peoia.
- Frutagintzako peoia.
- Belar-laboreetako peoia.
- Mozteko loreen laboreetako peoia.
- Lorezaintzako peoia.
- Mintegiko peoia.
- Lorezaintza-zentroko peoia.
- Kirol-zelaietako peoia.
- Loradendako peoia.
- Loradendako laguntzailea.
- Lore-biltegiko laguntzailea.
- Loradendako salmentako laguntzailea.
- Loradendako banatzailea.

Honako ikasketa hauekin jarrai dezakezu:

- Erdi-mailako beste edozein ziklotan sarbide zuzena. Titulu honek lehentasuna izango du familia bereko ziklotan.
- Batxillergoa, DBHko Titulua lortuko duzulako